BELDUR BARIK

BARAKALDOKO UDALA-IDAZKARITZA
AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO-SECRETARIA
DATA - FECHA 22/02/2017 ZKIA. / Nº 01406
ALKATETZAREN DEKRETU LIBURUA
LIBRO DE DECRETOS DE ALCALDIA

# ALKATETZAREN DEKRETUA

**2017rako XXVIII. INAUTERI LEHIAKETAREN DEIALDIA ONARTZEA**

Barakaldoko Udalbatzak, 2009ko azaroaren 16an egindako 28/2009 zenbakiko bilkura arruntean, "Barakaldoko lehiaketa kulturalei buruzko Arau Erregulatzailea" onartu zuen behin-behinean.

Behin-behinean onartutako akordioa jendaurrean jarri zen iragarki hau 2009ko abenduaren 7ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu egunaren biharamunetik zenbatutako 30 egun baliodunez interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkez zitzaten, Toki-Araubidearen Oinarriek araupetzen duten apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Aipatu epean alegaziorik aurkeztu ez zenez, 2010eko otsailaren 4ko 00973/2010 zenbakiko Dekretuaren bidez, Alkatetzak behin betiko onartu zuen aipatu araudia, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten testu osoa, 2010eko otsailaren 12an.

2016ko urriaren 14an, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen aipatu araudiaren 3. eta 7. artikuluetan egindako aldaketaren behin betiko onarpena.

Aipatu araudia indarrean sartu denez, eta aipatzen dituen lehiaketen artean 2017ko Inauteri Lehiaketa ere agertzen dela ikusita, Barakaldoko Udalak 2017rako XXVIII. Inauteri Lehiaketaren deialdia egitea erabaki du herritarren parte-hartzea saritu nahi duelako giro alai eta koloretsua eta herritarrentzat ikuskizun erakargarria sortzen laguntzeagatik.

Araudiaren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, diru-laguntzak banatzeko prozedurari Alkate Udalburu andreak onartutako deialdiaren bidez emango zaio hasiera.

Kontuan hartuz espedientea onartzeko bidezko diren legezko tramiteak, eta horien artean, aldez aurretiko fiskalizazioari dagokiona, inolako erreparorik gabe jarraitu direla.

# DECRETO DE ALCALDIA

**APROBACION DE LA CONVOCATORIA DEL XXVIII CONCURSO DE CARNAVAL 2017**

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria número 28/2009, celebrada el día 16 de noviembre de 2009, aprobó inicialmente la "Norma reguladora de los concursos culturales de Barakaldo".

El acuerdo de aprobación inicial fue sometido a exposición pública mediante la inserción del oportuno anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, el 7 de diciembre de 2009, a fin de que los interesados pudieran presentar cuantas alegaciones estimaran convenientes en el plazo de 30 días hábiles siguientes a dicha publicación, en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 49 de la Ley 7/1985 de 2 de Abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, sin que se presentara alegación alguna.

Mediante Decreto de Alcaldía número 00973/2010, de fecha 4 de Febrero de 2010, se declaró definitivamente aprobada la referenciada Norma, publicándose su texto íntegro en el Boletín Oficial de Bizkaia de fecha 12 de febrero de 2010.

Con fecha 14 de octubre de 2016, se publicó en el BOB la aprobación definitiva de la modificación de los Artº. 3 y 7 de la citada Norma.

Habiendo entrado en vigor la precitada normativa, que incluye entre los concursos a que se refiere, el Concurso de Carnaval 2017, y deseando el Ayuntamiento de Barakaldo recompensar la participación popular por su contribución a generar un ambiente alegre y colorista y a generar un espectáculo atractivo para los ciudadanos, se estima que procede acordar la convocatoria del XXVIII Concurso de Carnaval 2017.

Considerando que, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 7 de la Norma, el procedimiento para la concesión de subvenciones se iniciará mediante convocatoria aprobada por la Ilma. Sra. Alcaldesa-Presidenta.

Considerando que, se han seguido los trámites legalmente procedentes para la aprobación del expediente y entre ellos la fiscalización previa sin que se hayan emitido reparos.

Barakaldoko lehiaketa kulturalei buruzko Araubide Juridikoaren Arau erregulatzailearen 7. artikuluaren eta horrekin bat datozen artikuluen babesean, eta Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Droga-mendekotasunen Prebentzio Arloko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Alkatetza-Lehendakaritzak honako hau

## EBAZTEN DU

**LEHENENGOA.-** 2017rako XXVIII. Inauteri Lehiaketaren deialdi publikoa onartu da. Barakaldoko lehiaketa kulturalei buruzko Arau erregulatzaileak, 2010eko otsailaren 12ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak, araututako deialdia da.

**BIGARRENA.-** Zazpi mila berrehun eta berrogeita hamar euroko (7.250 €) gastua baimendu du Udalak, aurrekontuko 00700 33000 4810300 sailaren kontura (201700378 espediente zenbakia), emango diren sarien betebeharrei erantzun ahal izateko, Arauaren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Hona hemen emango diren sariak: 1. saria – 1.100 €, 2. saria – 850 €, 3. saria – 750 €, 4. saria – 650 €, 5. saria – 600 €, 6. saria – 550 €, 7. saria – 500 €, 8. saria – 450 €, 9. saria – 400 €, 10. saria – 350 €, 11. saria – 300 €, 12. saria – 250 € eta tresna, tramankulu nahiz karrozarik onena – 500 €.

**HIRUGARRENA.-** Deitutako lehiaketa honako arautegi juridikoaren bitartez antolatuko da:

### ***OINARRIAK – XXVIII. INAUTERI DESFILEA – BARAKALDO - 2017***

***Lehenengoa: kide kopurua***

*Modalitate bakarra egongo da:*

- *KUADRILLAK: Gutxienez hamabost kidez osatutako inauteri-taldeak dira.*

***Bigarrena: kategoria.***

*Kuadrillek kategoria bakarrean emango dute izena, bertako kideen adina zein den gorabehera.*

***Hirugarrena: mozorro-jantziak***

- *Parte-hartzaileak egindakoa eta originala izan beharko da mozorroa; beraz, kanporatua izango da erositako mozorroa duena.*
- *Kuadrillako kideen mozorroek lotura izan beharko dute aukeratutako gaiarekin.*

Al amparo del citado art. 7 y concordantes de la Norma reguladora del Regimen Jurídico de los Concursos Culturales de Barakaldo y a propuesta de la Concejala-Delegada de Cultura, Educación, Euskera, Juventud y Prevención de Drogodependencias, esta Alcaldía-Presidencia

## RESUELVE

**PRIMERO.-** Aprobar la convocatoria pública del XXVIII Concurso de Carnaval 2017, convocatoria que se regula por lo dispuesto en la Norma Reguladora de los Concursos Culturales de Barakaldo, publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia, de 12 de febrero de 2010.

**SEGUNDO.-** Autorizar el gasto por importe de siete mil doscientos cincuenta euros (7.250 €) con cargo a la partida presupuestaria 00700 33000 4810300, con **nº de expediente 201700378**, para hacer frente a las obligaciones derivadas de los premios a conceder, de conformidad con lo establecido en el Artº 7 de la Norma. Estos premios serán los siguientes : 1º premio – 1.100 €, 2º premio – 850 €, 3er premio – 750 €, 4º premio – 650 €, 5º premio – 600 €, 6º premio – 550 €, 7º premio – 500 €, 8º premio – 450 €, 9º premio – 400 €, 10º premio – 350 €, 11º premio – 300 €, 12º premio – 250 € y mejor artilugio, artefacto o carroza – 500€.

**TERCERO.-** La regulación jurídica a través de las que se ordenará el Concurso convocado es la siguiente:

### ***BASES – XXVIII DESFILE DE CARNAVAL – BARAKALDO – 2017***

***Primero: Número de componentes***

*Se establece una única modalidad:*

- *CUADRILLAS: Son aquellas agrupaciones carnavalescas compuestas por un mínimo de quince personas.*

***Segundo: Categorías.***

*Las cuadrillas serán inscritas en una única categoría independientemente de la edad de los miembros que la compongan*

***Tercero: Disfraces***

- *El disfraz debe ser original y estar elaborado por los participantes quedando descalificado aquel disfraz comprado.*
- *Los componentes de la cuadrilla deberán ir todos disfrazados con alguna relación temática entre sí.*

- *Jantzi erregional edo tradizionalak ez dira mozorrotzat joko.*

***Laugarrena: desfilea.***

*Otsailaren 25ean, larunbatean, izango da. Ordutegia, lekuak eta baldintzak, honako hauek:*

- ***17:30ean.***

*Desfilerako izen-emate fitxan agertzen den arduradunak ordu horretan joan beharko du KULTUR EGITARAUEN BULEGOAN antolakuntzak duen gunera, San Bizente kaleko 46 zenbakian. Han, izena emateko orriaren jatorrizkoa aurkeztuko du, eta IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA entregatuko zaio.*

- ***18:00etan***

*Kuadrillek, osorik, dagokien irteteko lekuan egon beharko dute, identifikazio zenbakia agerian dutela.*

- ***18:30ean***

*Aldez aurretik erabakitako ibilbideari emango dio DESFILEAK hasiera. Ibilbide osoan zehar, partaideak estuki lotuko zaizkie antolakuntza taldeak adierazitako jarraibideei. Antolakuntzakoek behar bezala egiaztatu beharko dute hala direna.*

- ***Herriko Plazara heltzea***

*Kuadrillak Herriko Plazara heltzean eszenatokira joango dira, eta identifikazio zenbakia entregatu beharko dute, ondoren, ARGAZKI OFIZIALA egin ahal izateko. Argazkia ateratakoan, desfilea amaitutzat joko da.*

- ***Sari banaketa***

*Herriko Plazako eszenatokian sariak nortzuei suertatu zaizkien adieraziko da, baita entregatuko ere. Ordura arte, ikuskizuna izango da jai esparruan . Sariak banatu ostean, berriro ere ekingo zaio jaiari, DJaren eskutik.*

*Aurreko edozein puntutan adierazitakoa bete ezean, kuadrilla lehiaketatik kanpo geratuko da.*

***Bosgarrena: DESFILEA etetea***

*Aipatutako eguna izango da desfilea burutuko den data bakarra; beraz, eguraldiagatik nahiz ezinbesteko arrazoiengatik ezin izango balitz egin, ez da inola ere beste egun batera atzeratuko.*

***Seigarrena: Sariak***

*Kuadrilla batek ez du sari bat baino gehiago eskuratzerik izango, tresna, tramankulu edo karroza onenagatiko saria irabazi ezean, kasu horretan bateragarria baita.*

- *Los trajes regionales-tradicionales no se consideran disfraces*

***Cuarto: El Desfile.***

*Se celebrará el 25 de febrero, sábado, en razón del siguiente horario, lugares y requisitos:*

- ***17:30 horas.***

*El responsable descrito en la ficha de inscripción del desfile, se dirigirá a dicha hora al punto de organización ubicado en la OFICINA DE PROGRAMAS CULTURALES en la c/ San Vicente nº 46. Allí deberá presentar el original de la ficha de inscripción y se le entregará un NUMERO DE IDENTIFICACION.*

- ***18:00 horas***

*Todos los participantes al completo estarán ubicados en el lugar de salida que les corresponda. El número de identificación será colocado en lugar visible.*

- ***18:30 horas***

*Inicio del DESFILE por el recorrido previsto. A lo largo de todo el recorrido los participantes se ajustarán estrictamente a las instrucciones facilitadas por el equipo de organización, que estará suficientemente acreditado.*

- ***Llegada a la Herriko Plaza***

*Las cuadrillas al llegar a Herriko Plaza se dirigirán al escenario donde entregaran el numero de identificación y se realizará la FOTO OFICIAL, realizada dicha foto se dará por concluida su participación en el desfile.*

- ***Entrega de premios***

*La comunicación y entrega de premios se realizara en el escenario de Herriko Plaza. Hasta ese momento un DJ animara el espacio festivo. Tras la comunicación y entrega de premios continuara el DJ*

*El incumplimiento de cualquiera de los puntos anteriores conllevará la descalificación de la cuadrilla.*

***Quinto: Suspensión del DESFILE.***

*La fecha indicada será la única en que se celebrará este desfile, de forma que si por razones climatológicas o de fuerza mayor hubiera de suspenderse, no se trasladará de ninguna forma a otra fecha.*

***Sexto: Premios***

*Ninguna cuadrilla podrá obtener más de un premio, a excepción del premio al mejor artilugio, artefacto o carroza que es compatible con los demás.*

*Sariak ondorengo kideek osatutako epaimahaiak emango ditu: Nerea Cantero (Kultura Arloko zinegotzi ordezkaria), Ana Morgado (Barakaldoko Merkatarien Elkarteko burua), Iñigo Escalante (Denbora Elkarteko argazkilaria), Mikel Picaza ('Malas Compañias Antzerki Konpainiako artista eta sortzailea) eta Helena Garcia (Kultura Arloko teknikaria). Epaia apelaezina izango da. Sariak eman gabe gera daitezke. Saritutako kuadrillak ez badaude sari-banaketa ekitaldian, sariei uko egin dietela ulertuko da.*

***Sariak***

| | |
|---|---|
| *Tresna, tramankulu nahiz karrozarik onena* | *500 €* |
| *Lehenengo saria* | *1.100,00 €* |
| *Bigarren saria* | *850,00 €* |
| *Hirugarren saria* | *750,00 €* |
| *Laugarren saria* | *650,00 €* |
| *Bosgarren saria* | *600,00 €* |
| *Seigarren saria* | *550,00 €* |
| *Zazpigarren saria* | *500,00 €* |
| *Zortzigarren saria* | *450,00 €* |
| *Bederatzigarren saria* | *400,00 €* |
| *Hamargarren saria* | *350,00 €* |
| *Hamaikagarren saria* | *300,00 €* |
| *Hamabigarren saria* | *250,00 €* |

***(*) Indarrean den legeria betez, dagokien PFEZ atxikipena ezarriko zaie sariei.***

***Zazpigarrena: baloratzeko irizpideak.***

*Honakoak izango dira kontuan:*

- *Mozorroak parte-hartzaileek beraiek eginak izatea eta, baldin badagokio, kuadrillaren koherentzia eta uniformetasuna: 40 puntu.*
- *Parte-hartzaileek erabiltzen dituzten tresnak, lanabesak, tramankuluak eta osagarriak: 30 puntu.*
- *Jaitsieraren ibilbidean dantzak, abestiak, musika eta jarduerak garatzea: 30 puntu.*

***Zortzigarrena: Sariak kobratzea.***

*Kuadrilla irabazleei telefonoz adieraziko zaie sariak noiz, non eta nola kobratu.*

*Los premios serán otorgados por el siguiente jurado: Nerea Cantero (Concejal Delegada del Área de Cultura), Ana Morgado (Presidenta de la Asociación de Comerciantes de Barakaldo), Iñigo Escalante (Fotógrafo de la Asociación Denbora), Mikel Picaza (artista y fundador de la Compañía de Teatro "Malas Compañías") y Helena García (Técnica del Área de Cultura). El fallo del jurado será inapelable. Los premios podrán quedar desiertos. Si los participantes premiados no estuvieran presentes en el momento de la entrega de premios, se entenderá que renuncian a los mismos.*

***Premios***

| | |
|---|---|
| *Mejor artilugio, artefacto o carroza* | *500 €* |
| *Primer premio* | *1.100,00 €* |
| *Segundo premio* | *850,00 €* |
| *Tercer premio* | *750,00 €* |
| *Cuarto premio* | *650,00 €* |
| *Quinto premio* | *600,00 €* |
| *Sexto premio* | *550,00 €* |
| *Séptimo premio* | *500,00 €* |
| *Octavo premio* | *450,00 €* |
| *Noveno premio* | *400,00 €* |
| *Décimo premio* | *350,00 €* |
| *Undécimo premio* | *300,00 €* |
| *Duodécimo premio* | *250,00 €* |

***(*) En cumplimiento de la legislación vigente, a los premios se les aplicará la correspondiente retención de I.R.P.F.***

***Séptimo: Criterios de Valoración.***

*Se valorará:*

- *La elaboración de los disfraces por parte de los participantes y en su caso coherencia y uniformidad de la cuadrilla: 40 puntos.*
- *Instrumentos, herramientas, artilugios y complementos utilizados: 30 puntos.*
- *Desarrollo de bailes, canciones, música y actividades a lo largo del recorrido de la bajada: 30 puntos.*

***Octavo: Cobro de premios.***

*A los ganadores se les comunicará telefónicamente fecha, lugar y forma para el cobro de premios.*

***Bederatzigarrena: izen-emateak.***

*Otsailaren 13tik aurrera emango dira desfilean parte hartu ahal izateko izenak. Izena emateko fitxa otsailaren 24ko 12:00 orenak aurretik entregatu beharko da Kultur Egitarauen Bulegoan (San Bizente, 46 - behea). Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 14:00etara.*

***Hamargarrena: Informazioa.***

*Arau hauen osagarri diren gainerako argibide guztiak Kultura Arloan emango zaizkie parte hartu nahi duten guztiei: 944789262. hgarcia@barakaldo.org*

***Hamaikagarrena: arauak onartzea.***

*Ezarritako arauekin bat etortzea eskatzen du desfilean parte hartzeko izena emateak. Oinarriak interpretatzean sor daitekeen ezein zalantza antolakuntzak ebatziko du.*

**LAUGARRENA.-** Norgehiagoka izango da sariak emateko araubidea. Hain zuzen ere, sariak emateko, aurkezten diren lanak konparatuko dira; haien lehentasun-ordena ezarriko da adierazitako irizpideei jarraikiz; eta, ordena horrekin bat, dagozkion zenbatekoak banatuko dira, deialdiak finkatzen duen mugaren eta Udalak erabil dezakeen kredituaren barnean betiere.

**BOSGARRENA.-** Aurkezten dituzten lanak aztertzeko eta ebaluatzeko, kalifikazio-epaimahai bat eratuko du Udalak, eta hauek izango dira epaimahaiko kideak: Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Droga-mendekotasunen Prebentzio Arloko zinegotzi ordezkari Nerea Cantero Gurtubay -epaimahaiko lehendakaria-, Ana Morgado Moreno (Barakaldoko Merkatari Elkarteko burua), Iñigo Escalante (Denbora Elkarteko argazkilaria), Mikel Picaza Rodríguez (`Malas Compañias Antzerki Konpainiako tokiko artista eta sortzailea) eta Kultura Arloko teknikari Helena Garcia Gonzalez - epaimahaiko idazkaria-.

**SEIGARRENA.-** Hirugarren atalean aipatutako sariak dagokion Alkatetza Dekretuaren bitartez ordainduko dira. Epaimahai kalifikatzaileak ebazpena ematen duen egunetik zenbatutako hilabeteko epean emango da dekretua eta saritutakoei banan-banan jakinaraziko zaie, aplikatu beharreko legeriaren arabera.

***Noveno: Inscripciones.***

*Queda abierto el plazo de inscripción para el desfile desde el 13 de febrero. Es preciso entregar la ficha de inscripción antes del día 24 de febrero a las 12 h en la Oficina de Programas Culturales (c/ San Vicente, 46-bajo). De lunes a Viernes: 9h - 14h.*

***Décimo: Información.***

*Cualquier información complementaria a estas normas que los participantes deseen recibir se facilitará en el Área de Cultura. 944789262. hgarcia@barakaldo.org*

***Undécimo: Aceptación de estas normas.***

*Cualquier participante que se inscriba en este desfile acepta plenamente cada una de las normas del mismo. Cualquier duda en la interpretación de las mismas será resuelta por la organización*

**CUARTO.-** Los premios se concederán de acuerdo con el régimen de concurrencia competitiva, a través de la comparación de los trabajos presentados, el establecimiento de una prelación entre ellos conforme a los criterios expresados y la adjudicación conforme a los mismos de las cuantías económicas correspondientes con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible.

**QUINTO.-** Para el análisis y evaluación de los trabajos presentados se constituirá un Tribunal Calificador o Jurado, integrado por Dña. Nerea Cantero Gurtubay, Concejala-Delegada de Cultura, Educación, Euskera, Juventud y Prevención de Drogodependencias, que ostentará la condición de Presidenta del mismo, Dña. Ana Morgado Moreno (Presidenta de la Asociación de Comerciantes de Barakaldo), D. Iñigo Escalante (Fotógrafo de la Asoc. Fotográfica Denbora), D. Mikel Picaza Rodríguez (Artista local miembro fundador de la compañía de teatro "Malas Compañías") y Dña. Helena Garcia Gonzalez, Técnica del Área de Cultura, que intervendrá en calidad de Secretaria.

**SEXTO.-** El abono de los premios descritos en el apartado tercero se realizará a través del correspondiente Decreto de Alcaldía, que se emitirá en el plazo máximo de un mes, a contar desde la resolución del Tribunal Calificador y que será notificado individualmente a cada uno de los premiados, conforme a lo establecido en la legislación aplicable.

**ZAZPIGARRENA.-** Ebazpenak amaitutzat emango du administrazio-bidea, eta, haren aurka, berraztertzeko aukerako errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute eskatzaileek alkate udalburuaren aurrean, hilabeteko epean ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dute administrazioarekiko auzietarako epaitegian, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 8. eta 10. artikuluek ezartzen duten eskumen-banaketarekin bat, bi hilabeteko epean jakinarazpena hartu eta hurrengo egunetik.

**ZORTZIGARRENA.-** Deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren web orrian argitaratu behar du Udalak.

**BEDERATZIGARRENA.-** Itzuli espedientea Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Droga-mendekotasunen Prebentzio Arlora.

Barakaldoko Udal Goreneko Alkate andreak agindu eta sinatu du, inskripzio zigiluan adierazitako datan, eta Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Droga-mendekotasunen Prebentzio Arloko zinegotzi ordezkariak eta Kulturako zerbitzuburuak ere izenpetu dute.

**SEPTIMO.-** Contra la resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse Recurso Potestativo de Reposición ante el Alcalde Presidente, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación de la misma, o bien directamente Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en virtud de la distribución de competencias prevista en los artículos 8 y 10 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa en el plazo de 2 meses contados, igualmente, a partir del día siguiente a la recepción de la notificación.

**OCTAVO.-** Procédase a anunciar la Convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el tablón de anuncios y página web del Ayuntamiento.

**NOVENO.-** Notifíquese a la Intervención Municipal y devuélvase el expediente al Área de Cultura, Educación, Euskera, Juventud y Prevención de Drogodependencias.

Lo manda y firma la Sra. Alcaldesa en la Casa Consistorial del Iltre. Ayuntamiento de Barakaldo, en la fecha señalada en el cajetín de inscripción, siendo suscrito por el Jefe de Servicio y la Concejala-Delegada del Area de Cultura, Educación, Euskera, Juventud y Prevención de Drogodependencias.

Ados/Conforme
**KULTURAKO ZERBITZUBURUA/ EL JEFE DE SERVICIO**
Joseba I. Sobrino Aranzabe

**KULTURA, HEZKUNTZA, EUSKARA, GAZTERIA ETA DROGA-MENDEKOTASUNEN PREBENTZIO ARLOKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA /LA CONCEJALA-DELEGADA DEL AREA DE CULTURA, EDUCACION, EUSKERA, JUVENTUD Y PREVENCIÓN DE DROGODEPENDENCIAS**
Nerea Cantero Gurtubay

KONTUHARTZE AURRETIKOA / FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS CONFORME
BARAKALDO 20-12-17

**ALKATEA / LA ALCALDESA,**
Amaia del Campo Berasategui

Haren berri hartuta / Tomé Razón
**IDAZKARI NAGUSIA / EL SECRETARIO GENERAL,**
Humberto Estébanez Martín

BARAKALDOKO UDALA ALKATETZA - AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO ALCALDÍA

BARAKALDOKO UDALA IDAZKARITZA NAGUSIA - UDAL FE PUBLIKOA - FE PÚBLICA MUNICIPAL - SECRETARÍA GENERAL AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO

Dekretu honek ez du baliorik izango, baldin eta ez badu Udal Idazkaritzan horretarako dagoen Alkatetzako dekretu- eta ebazpen-liburuko inskripzioen dagokion laukia eta prozeduran interesa duten hirugarrenei egindako lekualdatzeen Udal Erregistroko agirien Irteera zigilua.

El presente Decreto no será válido si no lleva incorporado cajetín de inscripción del mismo en el libro de Decretos y Resoluciones de la Alcaldía, obrante al efecto en la Secretaría Municipal de Salida de documentos en los traslados a terceros interesados en el procedimiento